

## **KONTROL MOZIOA**

### **INDARKERIA PAIRATZEN DUTEN EMAKUMEEKIN ESKU HARTZEKO PROTOKOLOA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren 12an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

2014-2018 Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planeko hirugarren lan lerroko 5. helburu gisa honako hau jaso zen: indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei kalitatezko arreta eskaintzea. Eta bertan, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloaren aplikazioa bermatzea. Hala nola, premia zehatzei loturiko baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak ahalduntzea indartuko duen arreta eskaintzea eta Udal Gobernuaren jarduera egokia bermatzea, eraso eta hilketa sexisten kasuetan.

2015. urtean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloa onartzera eramanez aurreko azken errebisioa gauzatzen ari zen eta lanketa egokia egiteko zenbait dekalogo ere prestatu ziren.

2016. urtea amaitu da eta Donostiako Udalak indarkeria pairatzen duten emakumeekin esku hartzeko protokoloa hiriko talde eta eragileekin kontrastatu eta onartu gabe jarraitzen du.

Horiek horrela, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

## **KONTROL MOZIOA**

1.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arduraz har dezala indarkeria pairatzen duten emakumeekin esku hartzeko protokoloaren onarpena, eta koordinatu dezala Udaleko sailen arteko lanketa eta hiriko eragileekin partekatzea, ahalik eta azkarren onarpena eman ahal izateko.

Donostian, 2016ko abenduaren 15a

Naiara Sampedro Perez  
EHBildu udal taldeko zinegotzia